

noaue



**Zubietak
Mikel Bengoetxea
omendu du**

**GuraSOSeK
estrategia berri bat
martxan jartzeko
asmoa azaldu du**



‘650 Usurbil bizi’ herri proiektua

**“Turismo identitario,
eraldatzailer eta aktibo bat
sustatu nahi dugu”**

*Gure Etorkizuna,
Orain eraikitzen da.*


Ekonomia modernizatuz.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean
eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen
gure etorkizunaren alde.

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN



EUSKARAREN 10. MARATOIA

ETORRI ETA SENTITU!

LASARTE-ORIA **urriaren 22an eta 23an**

musika

txosna

ikuskizunak



*eta 40 ordu
euskaraz!*

sentitu

prestatu...

eta ekin!



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



Albisteak iruditan

Gaztetxoen bertso-eskola martxan da

Urriaren 6an batu ziren lehen aldiz. Aurrerantzean, ostegunero elkartuko dira Udarregi ikastolan. Ekimen honen sustatzaileek aditzera eman digutenez, “luxuzko irakaslea dugu aurtan, Xabat Illarregi bertsolari leitzarra”. Bertso-eskolan parte hartzeko interesa dutenek ateak zabalik dituzte oraindik. “Ostegunero biltzen dira eguerdiko 13:30etik 14:30era”.



Udarregi ikastolan batzen dira ostegunero. Xabat Illarregik gidatzen du bertso-eskola.

Laburrean

Azaroaren 26an, 1969an jaiotakoen bazkaria

Maykar jatetxean batuko dira. Izena emateko 50 euro ordaindu behar dira Rural Kutzako ES32 3008 0259 1547 7191 6121 kontu zenbaki honetan. Izena emateko epea: azaroak 22 arte. Bazkaria 14:30ean hasiko da baina 12:00etan batuko dira Txapeldun tabernan.

Errigoraren udazkeneko kanpaina abiatzear

Urriaren 22an hasi eta azaroaren 10era arte luzatuko da kanpaina. Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktu goxoez hornituriko hiru otar izango dituzue aukeran. NOAUA! K.E.-ren egoitzan edo errigora.eus bidez egin ahalko dira eskaerak.

Urriaren 25ean, literatura topaketa Sutegin

Ana Merino herrikideak zuzenduriko solasaldia iragarri du Sutegi udal liburutegiak urriaren 25ean. “Los extraños” liburua aztertuko dute. Hitzordura egilea, Jon Bilbao idazlea gonbidatuko dute. Solasaldi honi begira, liburuaren aleak eskuragarri dituzue udal liburutegian.

noa.ua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noa.ua /// www.noa.ua
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.ua

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noa.ua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Hazia

Gontzal Mendibil (Zeanuri, Bizkaia, 1956) musikariak “Hazia” musikala konposatu du ohiko maisutasunez. Duela hiru aste estreinatu zuen Arrasateko Amaia Antzokian. Obra honen protagonista Jose Maria Arizmendiarieta kooperatiben sustatzailea da eta Mendibilek kantu bihurtu du bere bizitza. Gontzalen esanetan, bizikletaren apaizaren (horrela deitzen zioten Arrasaten) bizitza ohiz kanpokoa da, berezia, kontatzeko modukoa, “film baterako modukoa”, neurriz gaineko pertsonaia. Historia lokala eta unibertsala.

Duela hiru urte hasi zen lanean, Arizmendiarietaren informazioa arakatzen, berak idatzitako gogoetak aztertzen, eta batez ere, bere gainean idatzitakoa. Bere bizitza eta egintzak kontatu nahi zituen. Lana oso zaila zen. Nola bihurtu biografia hori musikal bat? Mendibilek dioenez, lehenik eta behin, bere ideiak poema bihurtu zituen eta gero, poema horiek musikatu. Horrela sortu zuen gidoia.

Arizmendiarieta Arrasatera joan zen 1941ean, apaiz laguntzaile bezala. Gerra ondorengo depresioa jasaten zuen herriak: 9.000 biz-



Gontzal Mendibilek ‘Hazia’ musikala konposatu du, Jose Maria Arizmendiarieta kooperatiben sustatzaile izan zenaren omenez.

LUIS ARANALDE

“Arizmendiarietak Mondragon Korporazioaren hazia erein zuen”

tanletik apenas 1.500ek lan egiten zuten burdinoletan eta tailerretan. Soziologia ikasita zegoen eta jakintza hori gizarteratu nahi izan zuen, heziketaren posibilitateak langileen seme-alaba guztiei zabalduz. Bizikleta xume baten gainean ibiltzen zen. Egun, bere museoan gordetzen da. Bere epitafioan honako hau irakur daiteke: “Bihotza, lana eta bizia zuen alde emanak”.

Mendibilen esanetan, Arizmendiarietak sortu zuenak 80.000 pertsonari ematen dio lana gaur eta halere, jende askorentzat guztiz ezezaguna

izaten jarraitzen du. Haurtzarotik hasita, bere bizitza osoa agertzen du musikalak, bere baloreak azalduz, inoiz baino beharrezkoagoak mundu lehiakor honetan. Gaur Mondragon Korporazioa deitzen diogunaren hazia erein zuen. Bera izan zen kooperatibismoaren bultzatzaile nagusia. “Bera apaiza zen, baina obra guztiz laikoa da eta bere balioak nabarmendu nahi izan ditugu musikal honetan: kooperatibismoa, elkartasuna. Konpetentziaren eta indibidualismoaren munduan bizi gara, eta berak ikusi zuen gauzak sortzeko beste era bat”, dio Gontzalek.

Hazia obra honetan, 11 musikaririk jotzen dute zuzenean, eta 18 aktore eta kantariak. Abesbatza pare batek, Easok eta Goikobaluk ere parte hartzen dute. “Musikala oso moderno da, beharbada nik egin dudana

modernoenetako bat”. Ohika taldeko dantzariak jardungo dira. “Nik batez ere, haren mezua kantatuko dut. Adibidez, eszena batean, batzuk kooperatibismoaren aldekoak dira, besteak konpetitiboak, eta ‘West Side Story’-ren antzeko gerra bat sortzen da. Kantak era askotakoak dira, istorioak eskatzen zuen araberrakoa”.

Zergatik jarri dio Hazia izena musikariari? “Azken batean, berak hazia jarri zuen eta gero hariztia sortu da: eskola publikoa, unibertsitatea, enpresak”. Kanta batzuetan entzuleek ere parte hartzen dute, lelo batzuk errepikatuz: “Nondik lan, handik jan; ametsak eraikitzen”.

Obra 135 minutu irauten du. Estreinaldia amaitu zenean, txalo zaparrada batez eskertu zuten ikus-entzuleek. Antzerkia, dantza, musika eta beste osagarri audio-bisualak zirrara sortu zuen publikoarengan. Mendibil berak honela dio: “lehengo batean, entseatzen, pertsona bi negar malkotan ikusi nituen, emozioz. Esan nuen: Kontxo, zerbait ondo egiten ari gaituk”. Azaroaren 26an iritsiko da Donostiara Hazia musikala. Irrikatzen nago “amesgile” zen Arizmendiarietari buruzko emanaldiaz gozatzeko.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapiain

Artzi
bazarriak EGUERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Zubietak Mikel Bengoetxea omendu zuen aurreko igandean

Eskerrik asko egiten duzun lan guztiagatik, Zubietak Pilota Elkartearen izenean. Esker hitzok jasotzen zituen txapela eta Kerman Errekondok abesturiko bertso idatziaren oroigarria oparituta omendu zuten igandean Mikel Bengoetxea Zubietan. Bertako pilota elkartean urte mordo eman ditu eta jarraitzen du, duen onena ematen.

59. Endika Abril errebote txapelketaren finala amaitu berrian, urteotan Zubietako herrigintzari, kirol elkarteari eskainitako denbora eta izerdia eskertza moduan itzuli nahi izan zion herriak. Errebote plazara sartzerakoan herrikide eta elkarteko kideek eskutan zestoak zituztela egin zioten harrera. Agurra dantzatzuz eta bertsoan egin zioten gorazarre Bengoetxeari.

Ezustekoa hartu zuen omenduak esker ona adierazi zien errebote plazan bildutakoei.



Agurra dantzatzuz eta bertsoan egin zioten gorazarre Mikel Bengoetxeari.

Hauxe izan zen bertsoa:
Zubietak pilota elkartearen
eskerrak jaso itzazu.
Mundu txiki hontan aurkitzen zeran
izar haundi bat zera zu.
Mikel lanean borondatean
huts egin gabe jo ta su.
Egindakoaren gure aitortza
txapela jantzi ezazu.
Partida ez da jokatu behar
irabazita daukazu.

Luzean taldea garaile Endika Abril errebote txapelketan

Luzean Donibane Lohitzuneko taldea 13-4 nagusitu zitzaion

Hazparneko Noizbait taldeari, urriaren 16an Zubietan jokatu zuten final handian. Aspaldiko partehartzaile kopuru handiena erakarri du lehiaketak, gutxira 9.

Zubietari dagokionez, txapelketako lehen fasea sailkapen buruan amaitu zuen bere B multzoan, multzo horretan lehiakide zituen Kapito Harri (13-4) eta Endaiarrak (13-7) taldeei irabazi ostean. Finalurreko neurketan ordea ez zuen iragan igandeko hitzordurako sailkatzerik izan.



Buruntzaldea ezagutuz

Uda giro beteko eguna baliatuta, lagun askok bat egin zuten urriaren 16an Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek tokian tokiko mendizaleen elkarrekin lankidetzan antolatutako Buruntzaldeko 14. Ibilbide Egunarekin. Ondoko iruditant, Santuenea sarbidean antolakuntzak jarria zuen kontrol guneetako bat. Oihala bat eskuratzeko aukera zuten, biler ibilbide osatzen zituztenek. Antolakuntzaren helburua, jarduera fisikoa sustatu eta eskualdeko landa-ingurunea hobekiago ezagutzeko aukera ematea zen beste behin.

Ibilbideen egun hau amaitu den arren, noiznahi egin daitezke txangoak inguruetan. Lagungarriak izango zaizkizue bailarako bideetan aurki ditzakezuen seinale eta panelak. Baita Navi Ruta aplikazioa ere.

Ika-mika

Maria Angelesek elkartasuna. Etxebizitza eskubide bat da

Gipuzkoako Kaleratzeak Stop plataformak lehengo asteen egindako agerraldiaren bidez jakin genuen Maria Angeles Otegi, 80 urteko herrikideak, bizi zuen egoera bidegabea.

Reno Amusement SL (Madril) mailegu-emaileak 60.000 euroko hipoteka-mailegua zinpetu zuen hildako semearekin, Maria Angelesen etxebizitza bermetzat hartuta. Abusuzko klausulak medio,

semeak hirugarren kuota ordaintzeari utzi zion, eta, ondorioz, mailegu-emaileak hipoteka betearazteko demanda bat tarteatu zuen. Maria Angelesek ez zuen horren berri izan, eta epaitegiak 2021eko apirilean jakinarazi zion etxebizitza enkantean jarriko zutela. Salatu nahi dugu zer-nolako basakeriak egiten dituzten hainbatetan mailegu-emaile, putrefuntsek eta hainbat bankuk. Klausula bidegabe hauek egoera zaurgarrietan eta beste

irtenbiderik gabe dauden herritarren gainetik etekin ekonomikoak ateratzeko erabiltzen dituzte. Negozioa, dirua, pertsonen gainetik jartzen dituzte. Baina, etxebizitza eskubide bat da eta ez negozioa.

Kaleratzeak Stop-eko abokatuak esan bezala, etxebizitza enkantean jartzeko prozesua atzeratzen/gelditzen saiatzen ari dira. Mailegu-emaileari ordaintzeke dagoen diru kopurua zehazteko eskatu diote zorra deusezteko ("enervar") aukera

eskatuz, hau da, zorra ordaintzea.

Herritar asko bezalaxe, gu ere kezkatuta gaude egoera bidegabe honekin. Maria Angelesek bere etxean bizitzen jarrai dezan ahal dugun guztia egingo dugu herri mobilizaziotik eta instituzioetatik.

Elkarrekin eta elkartasunez lortuko dugu!

Maria Angeles ez zaude bakarrik!

Usurbilgo Euskal Herria Bildu

Kirola egiteko materiala opari, Hurbilagoren tonbolan



Hurbilago elkarteko kide diren saltokietan sari mordoak oparituko dute beste behin ere.

Kirol kamera bat, mendi maki-la bat, Trolley maleta bat, yoga estera bat, kirola egiteko 4 mugikor zorro eta 2 katilu.

Hori guztia oparitu asmo du Hurbilagok elkarteko kide diren saltokietan. Sari mordoak beraz, erraz eskura ditzakezue-

nak. Usurbilen bizitzeaz gain, Usurbilen erosita. Orain hasi eta azaroa erdialdera arte, Hurbilagoren Tonbola berrian.

Gure Pakea elkartekoek Maria Angelesi laguntzeko elkartasun zozketa antolatu dute

Gure Pakea jubilatuen elkar-teak Artzabalen duen egoitzako jatetxean antolatu dute. Hamar zenbakidun 4 euroko zozketa baleak eskuragarri jarriko dituzte. Bi sari zozketa-tuko dituzte: 4 pertsonentzako asteburuko menua eta sagardo eta ardo lote eder bat.

Azaroaren 1ean egingo da zozketa

Zozketa azaroaren 1ean 18:00etan egingo dute. Bildutako laguntza osoa etxegabetez arriskuan den Maria Angeles herrikidearentzat izango da.



Aurreko astean azaldu genuen moduan, etxegabetezko arriskuan da Maria Angeles. Bere egoera salatzeko, agerraldia egin zuten Donostian.

HAPO-a, hasieraz onartua

Datozen 15 urteotan zer nolako Usurbil nahi dugun marraztua dago, azken urte luzeotan Udalak, herritar eta eragileekin lankidetzan jorraturiko bidearen ostean. Arloka, auzoka egin diren ha-maika partehartze prozesuek, teknikoki udal barruan egini-ko lanketak bere emaitza izan du; Hiria Antolatzeke Plan Orokor berria prest da. Hasieraz onartu zuten urriaren 13ko ezohiko udalbatzarrean. Behin-behinean eta gehiengo osoz, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. Aurka agertu zen EAJ.

Hiru hilabeteko alegazio epea zabalduko da orain hasi eta urtarrilaren 31ra arte. 2014ko maiatzean plangintza orokorra berri-kusteko abiatutako prozesu honek 2004-13 urte artean onartutako Arau Subsidiarioak ordezkaturiko ditu.

Aisialdiko begirale titulua eskuratzeko ikastaroaren aurkezpena

Zirimola ikastolen aisialdi taldearen baitako ikastolen elkarteko Aisiola hezitzaile eskola aisialdiko begirale gisa jarduteko beharrezkoa den titulua eskuratzeko ikastaroa eskaintzeko da Usurbilen. "Ikastaroa Usurbilgo aisialdiko egitasmoari egokitu zaio, herri hezitzaileen oinarrietatik abiatuta, euskaraz, herritik eta herriarentzat. Horretarako, Udala eta NOAUA! Kultur Elkartearekin elkarlanean dago Ikastolen Elkartea. Animatu eta izena eman!".

Ikastaroari buruzko zehaztasunen berri emateko aurkezpen ekitaldia antolatu dute urriaren 21ean, 19:30etan Potxoenean.

GuraSOsek estrategia berri bat martxan jartzeko asmoa du

Ekitaldi bakar eta berean, hitzaldia eta bilera deitu ditu ostegunerako, urriaren 20rako, arratsaldeko 19:00etan Sutejin. Hitzaldiari dagokionean, Fernando Palacios zientzialariak eta Joseba Belaustegi abokatuak hartuko dute hitza. “Lehenak erraustegia sortzen ari den kutsadura larriaren berri emango du (dioxina eta bestelako toxikoekin) eta honen eragina ingurugiroan eta osasunean zein den. Bigarrenak gertaera hauen ikerketa judiziala eta polizialaren azken berriak azalduko ditu. Hitzaldiaren bukaeran estrategia berria labur zuekin partekatuko dugu”.

Hain zuzen ere, GuraSOsetik ohartarazi dutenez, “erraustegiko proiektua inoiz baino ahulagoa dago eta inoiz baino baldintza hobeagoak daude geldiarazteko”. Zehaztu dute-



GuraSOsek sozializazioa, sensibilizazioa eta mobilizazio soziala berpiztea erabaki du.

GURASOS

Hitzaldia eta bilera deitu dute urriaren 20rako, arratsaldeko 19:00etan Sutejin

nez, “transformadore nagusia izorratu dute, kutsadura oso larria atzeman da lurretan, azpiko uretan eta azaleko uretan, horien artean dioxinenak...”

Hori dela eta hainbat ikerketa kriminalak irekita daude epaitegian nahiz fiskaltzan...”. Tesuinguru honetan, “GuraSOsek erabaki du sozializazioa, sensibilizazioa eta mobilizazio soziala berpiztea. Berrito aktibatzera goaz eta zuen beharra izango dugu antolatuko ditugun hainbat ekimen aurrera eramateko edo eta mezua zabaltzerako orduan”.

Liburu eta ipuinen ‘donazio kanpaina’ antolatu dute Zubietan

Bertako eskolako guraso elkar-teak abian jarri duen ekimenaren bidez, “etxean ditugun liburuen bilketa egingo da”.

Kaxkapen egongo dira bilketak, urriaren 19an eta 26an

Bilketa bideratzeko Kaxkapen egongo dira urriaren 19an eta 26an, 16:45-17:30 artean. “Ahalik eta egoera hobereanean ematea eskatzen da eta adin tarte guztientzat izatea (txikienentzat ipuinak eta zaharrenentzat eleberriek balio dute)”.



“Materiala ahalik eta egoera hobereanean ematea eskatzen da”. Argazkia: Barren.

Usurbilgo gaikako bilketa %86,9koa izan da urtariletik ekainera

Usurbilen sortzen diren hiri hondakin ia denak gaika biltzen segitzen direla berresten duten datuak eman ditu argitara Usurbilgo Udalak; zehazkiago esanda, 2022ko urtariletik ekainera arteko zenbakiak.

Kudeatutako hiri hondakinak 1.526,06 tona izan dira urtariletik ekainera, haietatik 1.326,22 tona gaika. Gainerakoa, 199,84 tona errefusa izan dira. Epe bereko duela

urtebeteko datuen alderaketa plazaratu du Usurbilgo Udalak:

Gaikako bilketa

■ 2022ko lehen sei hilekoan:

%86,90

■ 2021eko lehen sei hilekoan:

%86,59

Errefusa

■ 2022ko lehen sei hilekoan:

199,84 tona

■ 2021eko lehen sei hilekoan:

209 tona

Kudeatutako hiri hondakinak

■ 2022ko lehen sei hilekoan:

1.326,22 tona.

■ 2021eko lehen sei hilekoan:

1.560 tona.

Larrialdi guneetan hobekuntzak

Bide batez, Udalak berri eman duenez, hainbat hobekuntza egin dituzte Atalluko larrialdi gunean, proba moduan. Aurrerago gainerakoetan jartzekoak dituzte. “Materialak larrialdi

guneetan modu erosoagoan uzteko, edukiontzien tapak egokitu dira. Handiak zirenez, pisu handia hartzen zuten, eta indarraren arabera, erabiltzaile batzuek zailtasunak izaten zituzten hondakinak uzteko. Aldaketarekin, paperaren, ontzi arinen eta errefusaren edukiontzietan tapa erdia edo osorik irekitzeko aukera dago. Organikoaren edukiontzia- ren kasuan, pedala jarri diote, hankarekin ireki ahal izateko”.

Urriaren 31n, Gau Beltza Kalezarren

Aurreko astean aipatu genuen moduan, urriaren 31n Gau Beltza ospatuko dute Kalezarren. Deia ordea, usurbildar guztiei luzatu zaie. Eskribaenea etxearen aurretik abiatuko da kalejira modukoa arratsaldeko 19:00ak aldera. Parte hartu nahi duten gaztetxoek begiak estaltzeko moduko zapi bat eraman beharko dute etxetik eta trapu zaharrekin jantzita azaldu beharko dute, kalezartarrek proposatutako ibilbidea egiteko.

Kalezarren antolatu duten ekitaldiak aitzakia ederra eman digu gaubeltza.eus web orrialdeaz hitz bi egiteko. Azkenaldian eman den mugimendu bati erantzuteko sortu zen eta unitate didaktiko gisa ere funtzionatzen du.



“Parte hartu nahi duten gaztetxoek begiak estaltzeko moduko zapi bat eraman beharko dute etxetik eta trapu zaharrekin jantzita azaldu beharko dute”. Argazkia: Topagunea.

Material baliagarri ugari dago gaubeltza.eus web orrialdean

Urriaren 31n ospatzen da Gau Beltza. Azken urteetan ohitura zaharrak berreskuratuz, jaia berrasmatzen ari dira herriz herri. “Ospakizun horietako antolatzaile zein parte hartzaileekin bildu, ikuspegi ezberdinetako ekarpen berriak jaso, eta adostutako oinarri partekatu batekin osatu dugu Gau Beltza antolatzeko baliagarri izan nahi duen baliabide kutxa”, Topagunetik aditzera eman dutenez.

Euskaltzaleon Topagunea dago hortaz, ekimen honen



Azken urteetan jaia berrasmatzen ari dira herriz herri. Argazkia: Topagunea.

atzean (NOAUA Kultur Elkartea Topagunea federaziokide da, beste askorekin batera). UEUrekin elkarlanean

antolatutako ikastaro batean hainbat baliabide adostu ziren eta geroztik www.gaubeltza.eus webgunean jasota dago antzeko ospakizuna antolatu nahi duen edonorentzat baliagarria izango den materiala:

- Jaiaren jatorriaren azalpena eta testigantzak.
- Sustatu nahi diren baloreen deskribapena.
- Prozesuan laguntzeko gomendioak.
- Ospakizunetarako ekintza proposamenak.
- Komunikazio euskarriak.
- Web orria: gaubeltza.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 19/22
20170
USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
 **8:30-13:30**
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

“Sekulako erantzuna jaso dugu”

Hilabete luzez buruan izan ditugun lau egun hauek amaitu dira dagoeneko; ostegunetik igandera antolatu berri dugun garagardo-azokak amaiera izan du. Sekulako erantzuna jaso dugu herritarrengandik, eta oso harro gaude herriari eskaini diogun espazio hori beteta ikusteaz. Lan askoren ondoren, guztia trabarik gabe joan dela azpimarratu behar dugu, eta jaso dugun erantzuna uste baino oparoagoa izan dela iruditu zaigu.

Aipamen berezia egin nahi diegu azoka honen parte izan diren herriko babesleei (taberna, denda, enpresa...), eta orokorrean, egunean bertan laguntzera etorri ziren guraso, jokalaria zein zaletuei. Udaleko Zerbitzu Sailari ere esker



Usurbil KE eta Usurbil FT taldeek antolatu zuten Usurbilgo Lehen Garagardo Azoka. Otorduetan batu zen jende gehien.

mila; une oro laguntzeko prest egoteagatik! Azkenik, esker oneko mezua zabaltzea besterik ez zaigu gelditzen; zur eta lur geratu baikara herriak izan

duen erantzunarekin. Plazera da herriarentzat lan egitea, eta trukean horrelako erantzuna jasotzea. Gure aldetik berriz ere mila esker, eta hurrengo urtean

azokaz gozatzerantz animatzen zaituztegu!

**Usurbil Kirol Elkartea
eta Usurbil Futbol Taldea**




Garagardo Azokaren jarraipen zabala egin genuen web orrialdean eta sare sozialetan. Argazki hauek eta beste batzuk topatuko dituzue noaia.eus webgunean.



GAU BELTZA

Apaindu eta margotu.



Labirintoa



Gure Maripurtzil eta Pelloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gatzaina baino. Zein ote da goxokietaraino eramango dituen bidea? Aurki ezazu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Ispilutxo, ispilutxo...

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HAU GAU BELTZA DA!

KAKA!
EZ DUT
PUTZIK
IKUSTEN

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI-TXAPLA PUN...

ETA
GOXOKIRIK
EZ AL DA
BATERE?



Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi ispiatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.


Zer esaten ari ote da neskatoa? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia alboko hizki-marrazki alfabetoari begiratzuz, eta berehala jakingo duzu.



Zer ote?



Hildakoak gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dagokion izena, hizkiz hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.



Mezu gordea



Eraldaketarako turismo eredu berria

Usurbilen “identitatean, baloreetan, gure ondarean eta martxan ditugun proiektu eraldatzaileetan oinarritutako eskaintza bat proposatzen du”, Agurtzane Solaberrieta Mesa alkatearen esanetan, “650 Usurbil bizi” turismo eredu berriaren proiektuak. Iragan ostiralean aurkeztu zuten, aurrerantzean turismoaren erreferentzia gunea izango den Mikel Laboa plazan. “Turismo identitario, eraldatzaile eta aktibo bat sustatu nahi dugu. Izan ere nahiko genuke ere turismo aukera bat izatea beste gizarte eredu bat sustatzeko”.

Turismo eredu berriaren urte eta erdiko lanketa aurkeztu zuten jendaurrean, behetik gora eraikitako eskaintza. Udalarrekin aritu da Jon Maia Soria lanean, dokumentazio lanetan eta batez ere, berrogeitik gora herri eragilerekin bildu da. Lanketa honen emaitza da “650 Usurbil bizi” herri proiektua. “Usurbilen aukera izan dugu zerotik eredu bat asmatzeko, Usurbilen neurritik eta Usurbilen ezaugarrien arabera”, azaldu zuen Maia. Bere esanetan, “konturatu naiz zenbat altxor dituzuen herri honetan”. Eta horiek baliatu dituzte herriratu



‘650 Usurbil bizi’ egitasmoa aurkeztu zuten aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan. Turismoa “beste gizarte eredu bat sustatzeko” baliatu nahi dutela azaldu zuen alkateak. NOAUA!k partehartze zuzena izango du egitasmo honetan.

JON MAIA

“Usurbilen aukera izan dugu zerotik eredu bat asmatzeko, Usurbilen neurritik eta Usurbilen ezaugarrien arabera”

berri duten proiekturako; hainbat “existitzen ziren lehendik, Usurbilek dituen ondare eta altxorak dira, ez dira asmatu behar izan”. Guztiak “Usurbildik sortuak, usurbildarrek sortuak eta usurbildarrentzat”. Eta helburu eraldatzaile ho-

rrekin; “beste mundu bat posible da” aldarriaren bueltan. Hala, Usurbil anitz eman nahi dira ezagutzera, Mikel Laboa plazan dagoen totem-ean, ostalaritza sektoreko establezimenduetan banatuko diren eskuorrietan edota 650usurbilbizi.eus atari berrian ikusi ahaliko duzuenek.

NOAUA! K.E. partehartzaile aktiboa

NOAUA! K.E.-k dinamizatu eta koordinatuko du egitasmo berria. “Oso polita da NOAUA!

rentzat proiektu honetan akuitu edo dinamizazio lan horiek egitea eta batez ere beste eragile guztiekin bat egitea, guk ere horrela funtzionatzen baitugu; elkarlanean eta auzolanean sinesten dugu eta hori da gure oinarria”, adierazi zuen kultur elkartea honetako lehendakari Idoia Torregaraik. Sortzez erronka zalea den elkarte honen hasierako helburuetara zioenez, “berriak ere gehitu zaizkigu; kasu honetan, kultura eta turismoaren uztarketa polit eta berezia”.

650usurbilbizi.eus webgunea, eskuorria eta Mikel Laboa plazan ipinitako zutabea

650usurbilbizi.eus, horixe izango da aurrerantzean Usurbilgo turismo eredu berriaren ataria. Webgune bizi eta koloretsua, egile diren Ta Puntu kooperatibako kideek urriaren 14ko aurkezpenean azaldu zuten. “Lantaldea buru-belarri ibili gara proiektu honetan, nola jarri kolo-

rea, hainbeste hitz, sentsazio, emozio eta herri oso bat irudikatuko duen kontzeptu bati. “650 Usurbil bizi” erakutsiko lukeen argazkiz eta edukiz beteta erabat bizia izango den webgunea sortu dugu”. Webgunearekin eta eskuorriekin batera, dagoeneko Mikel Laboa plazan ikusgai duzun zutabea

ere diseinatu dute; bertan besteak beste, turismo eredu berriko zutabe izango diren Usurbil horien guztien xehetasunak, agenda edota herriko “museo irekia” osatzen duten elementu ezberdinei buruzko xehetasunak aurki ditzakezue.

Egitasmoaren beraren irudia ere sortu du Ta Puntuk. “Logo-

tipoa Dema plaza dago eta proba harria. Zumetaren horma-irudian oinarritua dago. Koloreak Zumetaren muretik hartuak daude, pieza guztiok osatzen dute herri oso batek egin dezakeen bizitzaren joko hori. Guk ere uste dugu beste mundu bat posible dela”.

Lehen proiektuak: Aranerreko parkea, Ez Dok Amairuri eskainia

Puntapax kaletik gorako Aranerreko parke berria, Ez Dok Amairu eza-gutarazteko baliatu nahi dute. “Ez Dok Amairuk ez duen leku fisiko bat zein izan zen eta zer suposatu zuen euskal kulturaren berpizkunde horretan azalduko duena”.

Parke berria diseinatzeko ha-
siak dira Kabiene elkarlan gu-
neko kideak, Antton Kortak eta
Julen Arteagak azaldu zutenaz.
Batetik, “espazioaren analisi fi-
siko bat egongo da”. Ane Gar-
cia itzultzaile eta testugileak
edukiari helduko dio. Aurrera-
go, kide gehiago batzea espero
dute. Baina ez dute iraganera
begirako parke bat eraiki nahi,
“gaur egungo kulturgileak eta
sortzaileentzako espazio bat
ere sortzea” nahi dute.



Udalaren egitasmo berri honetan herriko eragile ugari batu dira.

EZAUGARRIAK

**“Parke berria diseinatzeko
hasiak dira Kabiene
elkarlan guneko kideak”**

Egitasmo hau bideratzeko
lankidetzak hitzarmena sina-

tzeoak dira laster Usurbilgo
Udalarekin. “Usurbilgo Ar-
tzeak eta Jose Luis Zu-
meta abiapuntutzat harturik,
Ez Dok Amairuren unibertso
imaginario bat” sortu nahi du-
tela iragarri dute udal gobernu
taldeak. 2023an zabaldu asmo
dute.

Zumetaren muralak 50 urte

Eta datorren urtean, frontoi a-
tzealdeko Jose Luis Zumetaren
horma-irudiak mende erdia be-
teko du. Jon Maiak iragan os-
tiraleko aurkezpenean iragarri
zuenaz, “sekula ez da berri-
tu eta eraberritze-lanak izango
ditugu datorren urtean”. Eta
horrekin batera, bi erakusketa;
“bat, horma-irudia nola egin
zen azalduko duena, eta beste
bat Zumeta eta Usurbilen ar-
teko lotura erakutsiko duena”.
Bideo artistiko batzuk ere gra-
batu nahi dituzte, “horma-iru-
diaren aurrean Euskal Herri
mailako artistak jarriaz”. Eki-
men guztiok helburu nagusi
baten bueltan bideratu nahi di-
tuzte; “horma-irudi hau dago-
kion lekuan jartzea Euskal He-
rri mailan eta Euskal Herriko
irudi ikonikoetako bat izatea”.

Herriko ekoizle eta sortzaileen oterra

Herriko kanpora nahiz ba-
rrura begira jarriko gaituen
“650 Usurbil bizi” egitasmo
honen testuinguruan, herriko
ekoizleen eta sortzaileen pro-
duktuen oterak zozketatuko
dituzte abenduan, Hurbilago
ostalari eta merkatarien elkar-
teko dendetan erosketak egi-
tearen truke. Erosketetan es-
kuratu ahalko dira zozketarako
txartelak. “Animatu denoi he-
rriko dendetan erosketak egin,
herri merkataritza bultzatu eta
herri sorkuntza ezagutzera”,
luzatu zuen gonbita Luken Ar-
karazok. Otar horretan, “litera-
tura, musika, artisautza lanak,
moda diseinua... Ezohikoa den
otar bat osatzen gabiltza, gabo-
netan Usurbilgo etxe guztiak
herriko kulturgintzaz aberasten
jarraitzeko”. Kultura ez baita
kontsumorako, aisialdirako
produktu soil bat, “askoz ge-
hiago da”.

Kulturgunea, Udala eta

Hurbilago batu dira, Usurbil-
go ekoizle, sortzaile eta mer-
katariak batuko dituen “650
Usurbil bizi oterra” izeneko
proiektu honetara. “Otar oso
koloretsua izango dela aurre-
ratzen dizuet”, zioen Hurbila-
goren ordezkari Juanjo Allu-
rrek ostiraleko aurkezpenean.

Egitasmoaren diseinutik par-
te hartzen ari da Hurbilago eta
aurrerantzean, “bere ekarpena
egiten jarraituko du, proiektu
hau gorpuzten, eraikitzen,
egiten”, Allurrek iragarri zue-
nez, egitasmoaren “filoso-
fiagatik eta proiektu honen
ezaugarriengatik, tokiko mer-
kataritzak eta ostalaritzak etor-
kizunera begira behar dituen
ezaugarriekin, guztiz bat egi-
ten duen proiektu bat” baita.

Turismo eredu berriari lotu-
tako proiektutik gaketatzen jo-
tuen bi ezaugarri nabarmendu
zuten; “bereizten gaituenari
balioa ematea eta herri edota

komunitate izaera indartzea”.

Etorkizunean ere “komuni-
tate eta herri bizi izateko gure
auzo eta herriguneetako zer-
bitzuak behar beharrezkoak
ditugu”, gogorarazi zuen Allu-
rrek.

Zaintza ekosistema berria

Mikel Laboa plazan kokatu
duten “totem” edo zutabe-
an Usurbil biziaren agenda ikus-
gai izango duzue aurreran-
tzean. Momentuz, epe mo-
tzean, Usurbilen abian den
parte hartze prozesuaren bai-
tan lantzen ari diren zaintza
ekosistema berriari lotuta bi-
deratzekoak diren dinamika-
k; zaintza azoka edota hainbat
solosaldu datozen hilabeteo-
tan.

Zaintza ekosistema berria
eraikitze lanketan parte
hartzen ari den herrikide ba-
tek, Maider Makazagak hartu
zuen hitza iragan ostiraleko

aurkezpenean. “Urtebete
baino gehiago duen proze-
suarekin aurrera egiteko, he-
rrira eta herriarrentzat za-
baltzea ezinbestekoa ikusten
genuen. Horretarako, aukera
zabala egongo da datozen
aste eta hilabeteetan anto-
latu diren mahai-inguru,
solosaldu eta hitzaldietara
gerturatuz. Guztiok gonbi-
datu nahi zaituztegu parte
hartzera”. Zaintza ongizatea
da, “eta ongizatea denon es-
kubidea, baina denok dugu
zeresana eta zeregina zain-
tza gaitan”, Makazagak
oroitarazi zuenez. Horreta-
rako, “besteak beste, herri-
tar, bizilagun, komertzio,
administrazio, garraio eta
hirigintza eta kultura zain-
tzaileak behar ditugu. Guztia,
xede nagusi bat betetzeko;
“Usurbil herri zaintzaile
izatea nahi dugu eta guztion
arteak lortuko dugu”.

Igande honetako Baxurde Krossak eragin zuzena izango du trafikoan

Igande goizean korrikalariak izango dira protagonista nagusiak. Helduen saioa 10:30ean hasiko da. Umeena, 12:00etan. Lasterketa herrikoia eragin zuzena izango du trafikoan.

Bi urteko etenaldiaren ondoren, bueltan Baxurde Krossa. Korrika saioa igande goizean bada ere, izen-ematea bezperan itxiko da: urriaren 22an larunbata, arratsaldeko 16:00etan. Internetez egin behar da izen-ematea, ondoko helbidean: kronoak.com

Aldaketak ibilbidean

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, helduen ibilbidean aldaketa bat egin dute: Kale-zartik behera jaisten hastean, Aranerrekar sartuko dira lasterkariak, Olarriondora atera eta Munalurrik Bordatxo aldera joango dira.

Santuenean, berriz, zubia pasatu ondoren, Zubietara joango dira zuzenean, auzotik egiten zen buelta kenduta.

Ordutegiak

Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak egitarau hau iragarri du:

Urriak 23, igandea

■ 10:30 Helduen lasterketa (16



Bi urteko etenaldiaren ondoren, bueltan da Baxurde Krossa.

URRIAK 23 IGANDEA

“Donostia aldetik herrirako sarbidea trafikoa itxita egongo da

09:30etik 13:00era.

Eta lasterketa igarotzen den bidegurutzetan mozketak laburrak egingo dira”

urtetik gorakoak). 10,9 kilometroko distantzia. Usurbilgo frontoian hasi eta amaituko da. Herriko Kaxkoa eta landa eremuko bideak zeharkatuko ditu.

■ 12:00 Umeen krosa: benjaminak (2013-14an jaiotakoak) eta alebinak (2011-12an jaiotakoak). 600 metroko ibilbi-

dea.

■ 12:10 Umeen krosa: infantilak (2009-10an jaiotakoak) eta kadeteak (2007-08an jaiotakoak). 1.000 metroko ibilbidea.

■ 12:20 Prebenjaminen irteera. 200 metroko ibilbidea.

Izen-ematea:

Urriaren 22ko arratsaldeko 16:00ak arte kronoak.com atarian. 12 euro helduen lasterketa, doan umen krosa (2007-2014 urte artean jaiotakoentzat).

Informazio gehiago:

kronoak.com

Antolatzailea: Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea.

Autorik ez hartzeko aholkua luzatu du udaltzaingoa

Igande honetan, urriak 23, Donostia aldeko herrirako sarbidea trafikoa itxita egongo da 09:30etik 13:00era. Eta lasterketa igarotzen den bidegurutzetan mozketak laburrak izango dira. Gauzak horrela, denbora tarte horretan autoa ez hartzeko aholkua luzatu dute.

Autobusa San Inazio biribilgunean geldituko da

Donostia aldeko herrirako sarbidea trafikoa itxita egongo denez, 09:30etik 13:00etarako tarte horretan Donostia-Zumaia norabideko autobus geltokia San Inazio biribilgunera pasatuko dute.

Mozketak Usurbilgo zein Zubietako bidegurutzetan

Usurbilgo herrigunean eta Zubietan barrena ibiliko dira korrikalariak, eta lasterketako bidegurutzetan mozketak laburrak izango dira.

Autoa ez hartzeko aholkua

Ahal dela, krossak irauten duen denboran autoa ez hartzeko gomendatu du udaltzaingoa.

Aginagako Arrate elkarteko kideak sasoi onean daude



Aginagako Arrate elkarteko kide batzuk dira argazkikoak. Deba eta Mutriku arteko ibilbidea osatu zuten urriaren 15ean. Agijupens, erretiratu eta pentsiodunen gizarte zentroen Gipuzkoako elkarteak antolatutako irteera izan zenez, lagun gehiagorekin batera egin zuten bi herrien arteko bidea.

"Energia berriztagarria bai; mendiak txikitu ez"

Gipuzkoara atzerritik etorritako enpresa handiak -Green Capital eta Statkraft, momentuz- Gipuzkoan, han eta hemen, zentral eolikoak egiteko baimenak tramitatzen ari dira. Tartean behin, proiekturen baten berri izaten dugu, orain Urretxu-Zumarragan, gero Soraluez-Elgoibarren, geroago Azkoitian, geroxeago Zizurkilen eta azken berrien arabera Azpeitia-Errezil-Zestoa eta Eskoriatza-Aramaio aldean beste bana. Zenbat gehiago?

Erritmo berean sortzen ari dira taldeak edo plataformak helburu jakin batekin: bertako mendietako ondare naturala, arkeologikoa, geologikoa, historikoa, paisajistikoa eta espirituala babesteko; zein inguruetako baserrietako eta herrietako biztanleak, haien bizitokia, haien osasuna eta jardun ekonomikoa -berezi-ki nekazaritza jarduerari lotutakoa- defendatzeko. Eta elkarlanean hasi gara.

Izan ere, mehatxua ez da nolanahikoa: 200 metro luze eta 158 metro zabal liratekeen makroeoilikoak aurkeztu dituzte -Elgeakoak halako bi baino altuagoak; Eiffel dorreak 330m ditu, konparaziorako-, 5 metro zabal baino gehiago izango liratekeen errepede berriak mendi gainetarako eta hauetan zehar, hormigoizko zimentazio erraldoiak eta abar luzea.

Proiektuok berehala egiteko aitzakiazat Ukrainako gerra darabilte, energiaren prezioa garestitu duela esanez. Baina pasa den udazkenetik prezioen



"Mehatxua ez da nolanahikoa: 200 metro luze eta 158 metro zabal liratekeen makroeoilikoak aurkeztu dituzte".

MENDIAK ASKE TALDEA

"Aurkeztu diren proiektuen lehentasuna ez da Gipuzkoako herritarren energia beharra bermatzea, aberatsen diru nahia elikatzea baizik"

gorakada nabarmena zen, ekoizpe-nerako materiala bukatzen ari delako. Gainera, duela 20 urte, hainbat eremutan mehatxu bera egon zen eta herritarren eta udalen kontrako lanari esker geratu ziren proiektuok.

Orain ere, Gipuzkoarako aurkeztu diren proiektu eolikoak lehentasuna ez da Gipuzkoako herritarren energia beharra bermatzea, aberatsen diru nahia elikatzea baizik. Oro har herrialde pobretuetan hainbestetan erabiltzen den eredu bera da, "berriztagarri" eta "jasangarri" etiketak gehituta: azpiegiturak eraiki, ingurua eta inguruko biztanleak sakon kaltetu, hainbat urtetan intentsiboki ustiatu, eta ondoren, alde egin, zaborra eta kalteak bertan utzita.

Eredu horrek jasangarritik gutxi du, eta berriztagarritik ere berdin. Dorre eolikoak material

mugatuez egiten dituzte, eta horietako bakoitza egiteko behar dira: hormigoizko tona bana, 335 tona altzairu, 4,7 tona kobre, 3 tona aluminio, 2 tona lur arraro eta beste material batzuk -hala nola, zinka eta molibdenoa-. Jakina, material horiek lortu, garraiatu eta manipulatzeak kutsatu eta energia fosil asko gastatzen du. Bestalde, dorre eolikoak hegalek -70 metro luze edo luzeago direnak- gehenez 25 urtez funtzionatzen dute. Hondatzen direnean, oraindik orain, hondakin moduan lurperatzen dituzte gehien-gehienak. Berriztagarriak?

Erauntsi mediatikoez zabalitzen duten mezua da ez dagoela makroproiektuok berehala egin beste erremediorik. Ez da, bada, egia: energia lortzeko modu asko daude dagoeneko martxan, urrutira joan gabe, Euskal Herrian bertan, eta sortzen ari dira modu hobekien ere. Baliabide energetikoen ustiapenerako gobernantza eredu sozialak eta gertukoak baliagarrienak dira, instalazio txikiagoak energia kontsumituko den lekuetatik gertuago jarrita, jada artifizial-

zatuta dauden eremuak lehenetsiz -teilatutak, industrialdeak..., efizientzia energetiko hobea lortuz eta kalte txikiagoa eraginez. Europa erdialdeko hainbat herrialdetan bide horri ekin diote, eta horrekin batera debekatu egin dute mendietan eolikoak jartzea. Egin daiteke beste modu batera; hori ere asmatuta dago. Hemen zergatik ez?

Krisi energetikoaz gain, jakinekoea da gizarte eredu krisia daukagula: ekonomikoa, soziala, klimatikoa, elikadurarena, osasunarena eta abar luzea, dena elkarri lotuta dagoelako. Oso industrializatuta, kutsatuta eta artifizializatuta dagoen lurraldea da Gipuzkoa. Horregatik, eta murgilduta gauden krisi honetatik ateratzeko, mendiak, basoak eta larreak, bertako sare hidrologikoa, aniztasun biologikoa eta baliabideak errespetuz eta kontuz baliatzea dagokigu, oraingo zein ondorengo belaunaldiak bertan bizitzeko moduko lurraldea izan dadin. Horrek guztiak gizarte gogoeta bateratu eta integrala eskatzen du, energiari buruzkoa ere bai, eta horren ondoren, zentzuzko planifikazioa.

Gipuzkoako Mendiak Aske taldea: Azkoitia (Oletan ere ez), Azpeitia (Sañu Bizirik), Bergara (Karakate Bizirik), Elgoibar (Karakate Bizirik), Soraluez (Karakate Bizirik), Urretxu-Zumarraga (Urretxu-Zumarraga Bizil), Usurbil (Andatza-Ezkeltzu Bizirik), Zestoa (Sañu Bizirik), Zizurkil (Andatza-Ezkeltzu Bizirik).

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Mezu gordea

Zer ote?

Hildakoak gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dagokien izena, hizki hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.

AR B I A
G A R E Z U R R A
S A G U Z A R R A
H I L K U T X A
H E Z U R D U R A
K A N D E L A
K U I A
H I L O T Z A
H I L A R R I A
G A Z T A I N A

OS O
A S P A L D I
H I L D A K O A
I Z A T E K O
E Z D U Z U
K I R A F S
H A N D I R E K

ISPI LUTXO, ISPI LUTXO...

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HAU GAU BELTZA DA!

GAZTAINAK ERRE ARTEAN, GAZTAINAK ERRE ARTEAN, TXIPLI-TXAPLA PUN...

ETA SOXOKIRIK EZ AL DA BATERE?

KAKA! EZ DUT PUTZIK IKUSTEN

Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi ispirituen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

Zer esaten ari ote da neskatxo? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dagokien hizkia alboko hizki-marrazki alfabetoari begiratu, eta berehala jakingo duzu.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Kaxkoan etxebizitza alokatzen da denboraldi motzetarako. Bi logela, egongela, sukalde-jangela balkoiarekin eta komuna. Altzariz hornitua eta sartzeko prest. Telefonoa/WhatsApp: 657770131

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Alokairuan hartzeko etxe baten

bila nabil Usurbilen. 622925562

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabil-

tza. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona heldueak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat nabil. 626606527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz) Kurtsoan zehar arratsalde haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltsiritzan lan bila nabil.

Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Giltza batzuk aurkitu nituen irailaren 28an, Zumarte ondoko parkean. Udaltzaingoa daude.

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgaitzezko (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

Futbol partidak

Urriak 22, larunbata

10:00 Infantilak: Usurbil FT -Mundaiz SCD
11:30 Kadeteak: Usurbil FT B -Urniet KE B
15:30 Jubenilak: Usurbil FT B -Arrupe Chaminade CD D
17:45 Preferente mutilak: Usurbil FT-Axular KKE

Kanpokoak

12:45 Kadete preferenteak, Zarauzko Asti Txikin: Zarautz KE B-Usurbil FT
15:30 Erregionalak, Herreran: Asoleus CF-Usurbil FT
16:00 Preferente neskak, Orioko Mendibeltzen: Orioko FT-Usurbil FT
18:10 Jubenilak, Lasarteko Michelinen: Texas Lasartearra CF-Usurbil FT A

Urriak 23, igandea

9:00 Infantil neskak, Martutenen: Martutene KE B-Usurbil FT A
Martutene KE A-Usurbil FT B
10:00 Kadete neskak, Lazkaoko Arizti Handin: Goierri Gorri FK C-Usurbil FT

Eskubaloï partidak

Urriak 22, larunbata

16:30 Oiardo kiroldegian: - Urbil Usurbil jubenil neskak - Ingou Arrasate EB

18:30 Oiardo kiroldegian: - Usurbil KE - Easygas Urduliz Eskubaloia

Euskal Selektzioarekin

Usurbil Kirol Elkarteko Peru Iraeta, Iker Nazazabal, Ekain Vidal, Harriet Bengoetxea, Ander Allur eta Danel Jimenez jokalariek Euskal Selektzioaren deia jaso dute.

Esther Arrojeriak Europako eskubaloï txapelketa jokatu du

Bera Berako jokalaria Espainiako selektzioaren deia jaso du. Azaroaren 4tik 20ra jokatuko da txapelketa.

Pilota partidak

Urriak 21 ostirala,

18:00etatik aurrera Usurbilen:
EBA-Alebinak (2. urtea) - 1. m: - Pagazpe-Soraa - Lapke-Sardon

EBA-Alebinak (2. urtea) - 1. m: - Pagazpe-Alejo M. - Lapke-Andonegi

EBA-Alebinak (2. urtea) - 1. m: - Pagazpe-Alejo E. - Hernani-Azpeitia

EBA-Infantilak - 3. m: - Pagazpe-Iribar - Alde Zaharra-Gomez

EBA - Infantilak - 2. m: - Pagazpe-Jauregi - Oiarpe-Arizabalo

19:30ean Aginagan:
Paleta gomaz, binaka: - Pagazpe - Azkoitia

Goardiako farmaziak

Osteguna	20	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	21	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata	22	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea	23	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astelehena	24	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea	25	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Asteazkena	26	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna	27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala	28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata	29	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea	30	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda urria

21 ostirala

- "Bost teilatu" film proiektzioa Zubietan, 19:30ean Zubietako errebotte plazan.
- Aisialdiko hezitzaile tituluaren ikastaroaren aurkezpena, 19:30ean Potxoenean. Informazio gehiagorako: zirimola.eus

22 larunbata

- Booktegiren urteurren jaialdia. Azpikaldean dituzue xehetasun denak.

23 igandea

- 13. Baxurde Krossa. 10:30-13:30. Usurbilgo frontoian irteera eta helmuga. Informazio gehiagorako, ikus 14. or.
- Film proiektzioa: "918 gau". 18:30ean Sutegin.

Booktegiren 5. urtemuga jaialdia

Urriak 22 larunbata

- 10:00 Poesia-itzulera: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo udal liburutegia.
- 11:30 Solasaldia: Maialen Alozi, Oihana Arana Cardenal, Ibon Larrazabal, Amaia Arakistain.
- 16:00 "Habiak" emanaldia: Anari eta gonbidatuak.
- 17:00 Solasaldia: Mikel Soto, Maite Darceles, Danele Sarriugarte, Bakartxo Iguaran.
- 18:00 Emanaldia: "Azken aurreko manifestua". Iraia Elias, Hatxe.
- 19:00 Solasaldia: Axel Luzarraga, Irati Majuelo, Aitziber Etcheberria Garro, Ana Galarraga.
- 20:00 Emanaldia: "Meza Nagusia". Uxue Alberdi, Amorante.
- Oharrak: -Itxaro Borda izango da jaialdiko anfitrioi.



Habiak (Esan Ozenki, 2000) diskoaren inguruan emanaldi berezia egingo du Anarik Sutegin.

trioia. Musikaria, berriz, Xabi Strubell. -"Habiak" erakusketa Sutegiko erakustaretan, urriaren 22tik 30era. Sarrerak: usurbilkultura.eus

- Antolatzailea: Booktegi kultur elkarteak hainbat herri eragilarekin lankidetzan.

Informazio gehiago:

booktegi.eus

"918 gau" film proiektzioa Sutegin

2007ko urriaren 4an, Arantza Santesteban '918 gau' filmaren zuzendaria atxilotu eta espetxeratu egin zuten. Zenbait oroitzen gordetzen ditu egun haietatik: patrioko joan-etorri amaigabeak, igeriketa-lehiaketak, Rasharen bizipen latzak kartzelan... 918 gau giltzapetuta eman eta gero, Arantza aske geratu zen. Handik aurrera, grabagailu batean jaso zituen bere oroitzenak eta zalantzak, eta

filmean zehar azalduko zaizkigu, memoria zatikatu baten eran".

Urriak 23 igandea

- 18:30ean, Sutegin.
- Sarrerak 6 eurotan usurbilkultura.eus atarian. NOAUA! K.E.-ren bazkideek 4 eurotan eskura dezakete, aldeztu aurretik eta soilik NOAUA!ko egoitzan.
- Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Datozenak

Udal liburutegiko agenda

Urriak 20, osteguna

- 18:00 Lur Korta ipuin kontalaria (6 urtetik gora).

Urriak 25, asteartea

- 19:00 Jon Bilbaoren "Los extraños" liburua aztertuko dute.
- Izen-ematea: usurbilkultura.eus

Urriak 27, osteguna

- 18:00 Pello Añorga ipuin kontalaria (HH4koentzat).

'Geuretik sortuak', filma eta antzezlanak

Urriak 21, ostirala

- 19:30 "Bost teilatu" film proiektzioa Zubietako errebotte plazan. Leire Egaña zuzendaria eta Eñaut Tolosa gidotaria bertan izango dira.

Urriak 30, igandea

- 18:30 "Harri minak" antzezlanak Sutegin. Konpainiak: Berritza eta Bonbon Beltz.
- Zuzendaria: Amancay Gaztañaga.
- Antzezleak: Josune Gorostegui eta Dominika Recalt (Titika).
- Sarrerak: doan, usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzaileak: Udalbiltza Partzuergoa eta Usurbilgo Udala.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOK

688 843 696
Zubiaurrea 1, 1c Usurbil

Usurbil Döner Kebab
USURBIL



843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

600 024 825

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

BUELTAN DA

USURBILGO

TON-BOLA

**Sari pila bat daude
kaxa barruan.
Lortu zeurea!**

**Establezimendu bakoitzean
sari hauek irabazi ditzakezu:**

- Kirol kamera 1
- Mendi makilak 1
- Trolley maleta 1
- Yoga estera 1
- 4 kirola egiteko mugikor zorro
- 2 katilu

hurbilag 
USURBILGO MERKATARIETAKO
POSTALAREN ETXETAK



Usurbilgo
Udala
gertu@go

Euskadi mugalarantz hiru eremu



Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra

AURKEZPENAK



AURKEZPEN PUBLIKOAK ETA ERAKUSKETAK

USURBIL
oraina da geroa

Azaroak 15

18:00/ Potxoenean

+ Erakusketa
Sutegiko
erakusketa gelan

- 📅 Azaroaren 20tik 22ra
- 📅 Abenduaren 7tik
urtarrilaren 31ra

Azaroak 23

18:00/ Aginagako
Eliza Zaharrean

+ Erakusketa
Eliza Zaharrean

- 📅 Azaroaren 23tik 29ra

Azaroak 30

18:00/ Zubietako
Kaxkapen

+ Erakusketa
Kaxkapen

- 📅 Azaroaren 30etik
abenduaren 6ra

ARKITEKTOAREKIN HITZORDUAK

Azaroan eta urtarrilean

Astelehen arratsaldeetan: **17:00/19:00** | Astearte goizetan: **09:00/13:00**

Ezinbestekoa da aurrez hitzordua hartzea, udalera deituta: **943 37 19 51**



Usurbilgo Udala
www.usurbil.eus